# TXOSTENA
# 2013

CSCE EKGK
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi
Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua

# TXOSTENA
# 2013

CSCE EKGK
Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi
Euskadiko Kooperatiben Goren-Kontseilua

# Aurkibidea

3 Presidentearen agurra

7 CSCE-EKGKren 2013ko ekitaldiko jarduera-txostena

19 Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua 2013ko ekitaldiko Oroitidazkia

23 Kontseiluaren osaera

27 Aurrekontu-alderdia

33 Estatistika-eranskina

# Presidentearen agurra

*Euskadiko Kooperatiben Goren KontseiluarenTXOSTENA honetan joan den 2013ko ekitaldiko jarduerak laburbiltzen dira, hau da, gure erakundeak euskal kooperatibismoa sustatu eta hedatzeko zerbitzuan 30. urteurrena ospatu duen ekitaldikoak.*

*Aipatu ekitaldian aipatzekoa da datorren 2014-2017 laurtekorako egin den hausnarketa estrategikoa, zeinean gaur egungo Zerbitzu Eredutik Etorkizuneko Zerbitzu eredura igaro nahi den; bertan, Kontseilua, Osoko Bilkuraren bitartez, Euskal Kooperatibismoaren Batzorde Estrategikoa bihurtu nahi da, bere printzipioak eta balioak sustatu eta hedatzeari dagokionez.*

*Horrez gain, dagokion adierazpenaren bidez, elkartasun mezu bat zabaldu da joan den ekitaldian bereziki larriagotu den gaur egungo krisi ekonomikoaren eragina zuzenean jasandako kooperatibistentzat, konbentzimendu irmoa dugulako kolektibo kooperatibistaren konpromiso solidarioak lagundu egingo duela kooperatibismoa inspiratzen duten printzipio eta balioak indartzen.*

# EKGKren jarduera-txostena 2013ko ekitaldia

Kontseiluak garatzen dituen jarduerak honako arlo hauetan banatzen dira, bera arautzen duten jarraibideetan agindutako eginkizunen izaeraren arabera.

## Administrazioarekiko lankidetza eta kontsultei erantzutea

arduera administratiboak eginez nahitaezko txostenak emateko orduan eta kooperatiba elkarteak desegiteko espedienteetan, eta Kooperatiben Erregistroan eskatutako kontsultetan zein Kontseiluaren aurrean formulatzen diren kontsulta juridikoetan lagunduz.

## Kooperatibismoa sustatzea eta bultzatzea

Zuzeneko jardueren bidez edo erakunde laguntzaileekin egindako hitzarmenen bidez (Elkarte Kooperatiboak eta EAEko unibertsitateetako Azterketa Kooperatiboko Institutuak), baita ere, Kontseilu honez gain, Euskal Mugimendu Kooperatiboko beste erakunde batzuekin eratutako estaldura erakundeen bidez, jarduera estrategikoko hainbat eremutan, hala nola:

- Kooperatiba berrien sustapena (Elkar-Lan S.Coop)
- Finantza abalak ematea (Oinarri SGR)

## Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua

Arbitraje, kontziliazio eta bitartekaritza prozedurak tramitatzeaz arduratzen da, eta gatazkak prebenitzeari lotutako kontsultei ere erantzuten die.

Oinarrizko jarduera horietatik eratorritako ekintzak ez ezik, izaera orokorreko hainbat zeregin aipa daitezke, dagozkien ataletan zehaztuko direnak.,

## Administrazioarekiko lankidetza eta kontsultei erantzutea

## Esparru arauemailearen hobekuntza

### Nahitaezko txostenak

rauen inguruko proiektuei lotutako nahitaezko txosten eskaera hauei erantzun zaie:

- *Dekretu Proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2014. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen duena.*
- *Agindu Proiektua, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, gizarte ekonomian ekiteko eta gizarte ekonomiako enpresen lurralde sustapen planifikatua egiteko.*
- *Agindu Proiektua, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, gizarte ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak arautzen dituena.*
- *Agindu Proiektua, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte ekonomiako enpresen eta entitateen elkartze egiturak finkatzeko laguntzak ezartzen dituena.*
- *Agindu Proiektua, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte ekonomiako enpresetan laguntza teknikorako laguntzak deitzen eta arautzen dituena.*
- *Agindu Proiektua, Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuarena, gizarte ekonomian prestatzeko laguntzak deitzen eta arautzen dituena.*
- *Dekretu Proiektua, Estatutuaren araberako Hitzarmen Kolektiboak ez aplikatzeko prozedurak ebazteko organoa sortu eta arautzekoa.*
- *Dekretu Proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2014. urteko jaiegunen egutegi ofiziala aldatzen duena.*

## Euskadiko Kooperatiben Legea

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren ekimenez eratutako Lan Batzordean lan egin da, araudia egokitzeko proposamenak jorratzeko helburuarekin, kooperatibismoa sustatu eta bultzatzera zuzenduta zein horren oinarri diren printzipioak eta balioak babestera.

## Kooperatibak desegitea

Kooperatiben **41 likidazio espedienteri eta beste formula juridiko batzuetara eraldatzeko 11 espedienteri** buruz dagozkien erabakiak hartu dira.



## Kontsultak

Formalki planteatutako kontsulta hauei erantzun zaie:

| Espendienteak | Kontsultaren gaia |
|---|---|
| 1 | Nekazaritzako zenbait kooperatibatan zuzendaritza karguen eta Kontseilu Errektoreko postuen artean egon daitezkeen bateraezintasunak |
| 2 | Europako Sozietate Kooperatibo bat osatzen duten erakundeen arteko sozietate loturako eta ondare loturako modalitateak |
| 3 | Kooperatiba baten egora juridikoa planteatu da, zeinean, administratzaile bakarra egonik, 10 bazkideren kopurua gainditu den, eta, egoera hori jakinik, administratzaile bakarraren figura mantentzeko borondatea dagoen, Batzar Nagusian berretsita |
| 4 | Arlo sozio-sanitarioan dihardeun kooperatiba batek tokiko beste erakunde batzuekin dagozkion hitzarmen administratiboak izenpetu ahal izateko tresna juridikoak zehaztea planteatu da |
| 5 | Europako Sozietate Kooperatibo bateko kideen eskumenak eta garatuko beharreko eginkizunak jasotzeko egokiena izango den formula juridikoari lotutako hainbat gai planteatu dira |

## Kontsultak

Horrez gain, Letradu Aholkulariak hainbat kontsultari erantzun die interpretazio juridiko orokorrari buruz, eta hau da horien laburpen kuantitatiboa:

| KONTSULTAK (aztertutako gaiak) | |
|---|---|
| Kontsulta formalak | 5 |
| Eraketa | 7 |
| Organo sozialak | 37 |
| Erregimen ekonomikoa | 72 |
| A.Publikoari lotutako gaiak | 46 |
| Likidazioa | 123 |
| Eraldaketa | 12 |
| Hainbat | 0 |
| GUZTIRA | 331 |

| KONTSULTAK (kooperatiba motak) | |
|---|---|
| LAN ELKARTUA | 197 |
| ETXEBIZITZA | 109 |
| IRAKASKUNTZA | 14 |
| KONTSUMOA | 1 |
| GARRAIOLARIAK | 7 |
| KREDITUA | 0 |
| NEKAZARITZA | 3 |
| GUZTIRA | 331 |

# Kooperatibismoa sustatzea eta bultzatzea

## Senior aholkulariak

Ekitaldiaren amaieran guztira Lan Elkartu, Nekazaritza eta Irakaskuntza sektoreetako 10 kooperatibari ematen ari zitzaien arreta.

Nabarmentzekoa da Kontseiluko Senior Aholkularien Zerbitzuak Leinnek (Mondragon Unibertsitatea) bultzatutako Junior Kooperatiben arduradunei lankidetzarako egindako eskaintza.

# Erakunde partaidetuak

## Oinarri SGR

2013koa oso ekitaldi zaila izan da, krisi orokorraren ondorioz jarduera sektore gehienak nozitzen ari diren egoera ekonomiko-finantzario latza kontuan hartuta.

Arazo horiek gorabehera, ia 75 MM euroko abalen bolumena formalizatzea lortu da, eta horietatik %75 abal finantzarioak izan dira.

Emaitza ekonomikoen atalean, Hornidura Teknikoen Funtsaren kargurako beharrak handitzearen ondorioz sortutako arazoez gain –abalatutako kredituen berankortasun eta hutsegiteengatik–, Fagorren eta Eroskin sozietatearen aktibo finantzarioek balioa galtzearen ondoriozkoak aipatu behar dira Halere, erakunde babesleek HTFra egindako transferentziei esker, beren ekarpen sozialen kontu, eta Eusko Jaurlaritzak Fondo horretara Egindako transferentziei esker, azkenean ekitaldiko emaitzen kontua orekatzea lortu da.

## Elkar-Lan S.Coop

Guztira 132 kooperatiba dira Elkar-Lan, S.Coop.en bitartez eratutako kooperatibak; ondoren, horien egoera geografikoa sortutako enpleguen kopurua laburtzen da.

| Lurraldea | Kooperatiba kop. | Sorturiko lanpost. |
|---|---|---|
| Araba | 26 | 67 |
| Bizkaia | 63 | 205 |
| Gipuzkoa | 43 | 157 |
| **GUZTIRA** | **132** | **429** |

## Erakunde laguntzaileekin egindako Hitzarmenen bidez kooperatibak sustatzeko programen garapenean egindako jarduerak

Kontseiluak sustapen eta zabalkundearen arloan bultzatu nahi diren jarduera ildoak aurretiaz definitu eta gero, eta jarduera ildo horiek garatzeko erakunde laguntzaileek aurkeztutako proposamenak hautatu eta gero, guztira 117.600 €-ko zenbatekoa bideratu da ondoren zehazten diren programak kofinantzatzera:

# Kontseiluaren jardueraren txostena

| Zka. | 2013eko Jarduera/Programak | Erakundea |
|---|---|---|
| 1 | Kooperatibismoa komunikabideen aurrean zabaltzeko kanpaina | ERKIDE |
| 2 | Egungo krisi egoerari lotutako Prestakuntza kanpaina | ERKIDE |
| 3 | Elkar Euskaraz programa | ERKIDE |
| 4 | Erabilera informatiko-ofimatikoari buruzko prestakuntza | ERKIDE |
| 5 | Bidaia teknikoa | ENKF-FCAE |
| 6 | Arazoak dituzten nekazaritzako kooperatibetan 5 s-ak ezartzea | ENKF-FCAE |
| 7 | EAEtik kanpoko kooperatibak erakartzea. | EKKF-FECOE |
| 8 | Brasilgo Lurgabeen Mugimenduko (MST) herri eta elkartasun ekonomiako esperientziei buruzko prestakuntza, laguntza teknikoa eta jarraipena | MU LANKI |
| 9 | MONDRAGONeko kooperatibetan prestakuntza kooperatiboa hedatzea | MU LANKI |
| 10 | GEZKI-Gizarte Ekonomiaren Euskal Behatokiaren SIG korporatiboa eguneratzea eta hobetzea: GISKoop | EHU |

## Forokoop

Kontseiluak, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioarekin batera, Eztabaida Kooperatiborako Foroa sustatzen eta bultzatzen parte hartzen du, eta, gai kooperatiboei buruzko foro birtual bat duen webgune bat izateaz gain www.forokoop.coop, jardunaldi presentzialak ere antolatzen ditu, aurretiaz zehaztutako gai interesgarriei buruz.

Zehazki, 2013ko urriaren 9an, EHUko Bizkaia Aretoan jardunaldi horietako bat antolatu zen, gizarte ekimeneko ekonomia osatzen duten erakundeen gaia lantzeko; bertan, horien oinarrian dauden printzipioak eta balioak jorratzeaz gain, gizarte ekonomiaren sektore hori osatzen duten hainbat enpresa ere aztertu ziren.

## Izaera orokorreko jarduerak

- **30. urteurrenaren ospakizuna**

  Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua formalki eratu zen hilabete eta egunarekin bat eginda (1983ko urtarrilaren 28a), Ezohiko Oso Bilkura egin zen, gure erakundearen 30. urteurrena ospatzeko.

- **2014/2017 Plan Estrategikoa**

  2014/2017 laurtekorako jarduera ildo estrategikoak definitu dira eta, beste alderi batzuen artean, Etorkizuneko Zerbitzu Eredua zehaztu da, Kontseiluak kooperatibismoari buruzko eta horren aldeko Batzorde Estrategiko moduan funtziona dezan; halaber, hori lortzeko trantsizioaren eskema ere zehaztu da, guztia ala guztia ekintzak, arduradunak eta gauzatzeko epeak ezarrita, zeinak urtero zehaztu eta berrikusiko diren laurtekoko urteko Gestio Planen bitartez.

- **Kontseiluaren adierazpena krisiak gehien eragindako kooperatiba eta kooperatibistei gure elkartasuna erakusteko**

  Kooperatibak eta kooperatibistak igarotzen ari diren egoera larria dela eta, Kontseiluko Osoko Bilkurako kideen aho bateko sentipena jasoz, honako jakinarazpen hau landu

eta ondoren komunikabideen artean zabaldu da:

*Azken urteotan igarotzen ari garen krisi egungo egoera orokorra eragin negatiboa izaten ari da euskal kooperatibek garatzen dituzten hainbat jarduera sektoretan.*

*Panorama informatiboan Fagor Etxetresna Elektrikoak nozitzen ari diren egoera arazotsuari buruzko albisteak agertu berri direlarik, kooperatiba enblematikoa hartzekodunen konkurtsoan sartu behar izatearen ondorioz, agerian geratu da aipatu kooperatiba murgilduta dagoen jarduera sektorearen krisiaren gogortasuna.*

*Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilutik, Euskadin kooperatibismoa sustatzeko eta zabaltzeko organo gorena den heinean, elkartasunaren alde egiten dugun apustua nabarmendu nahi diegu egoera zail honetan krisiak gehien eragindako kooperatibetako bazkideei. Ildo horretan, erakunde publiko moduan gauden esparrutik, ordezkatuta dauden sektoreekin lankidetzan, koste soziala minimizatzeko ekimenak babestuko ditugu, eta Euskadiko mugimendu kooperatiboa indartzen lagunduko dugu, balio kooperatiboak baliagarriak direlako eta indarrean daudelako konbentzituta; halaber, beharrezkoa da horiek berrinterpretatzea, kooperatibetako bazkideentzat eta ordezkaritza organoentzat sekula pentsatu eta espero gabeko egoeren aurrean, eta azpimarratzen dugu, erabateko konbentzimenduz, gure apustua seguruenik gaurkoa ez bezalakoa, baina aldi berean guztiz itxaropentsua, izango den euskal kooperatibismoaren etorkizun baten aldekoa dela.*



# Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua

## Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzua

Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseiluaren barruan sorturiko Kooperatiben Arbitrajeko Euskal Zerbitzuaren helburua hau da: Kooperatiben artean, kooperatiben eta bazkideen artean, edo kooperatiba bakoitzaren barruan bazkideen artean interes gatazkak sortzen direnean, gatazka horiek hobeto konpontzen laguntzea.

Aurreko ekitaldian bezala, gatazkak epaitegietatik kanpo konpontzeko jarduerak euskal kooperatiben gatazken konponbidea arautzen duen Araudiaren arabera egin dira (EHAA, 2012-02-16); Araudian, beste alderdi berritzaile batzuen artean, prozedura laburtuaren modalitatea ezartzen da, auziko zenbatekoa 10.000 €-koa baino txikiagoa denean edo informazio eskubideaz baliatzeko asmoa bakarrik duten arbitraje eskaeretan.

Hona hemen, zehaztuta, arbitraje eta adiskidetze gaien modalitatean egindako jardueren emaitza, horien artean aipa daitekeelarik, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, prozedura laburtuaren ondorioz arbitraje espedienteen kopuruak izandako hazkunde nabarmena:

| 2013 | Auzigaia (ARBITRAJEA) |
|---|---|
| 1 | Informazio eskubidea |
| 2 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 3 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 4 | Ekarpenak itzultzea |
| 5 | Ekarpenak itzultzea |
| 6 | Erabakiak inpugnatzea |
| 7 | Erabakiak inpugnatzea |
| 8 | Egiteko betebeharra |
| 9 | Ekarpenak itzultzea |
| 10 | Ekarpenak itzultzea |
| 11 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 12 | Erabakiak inpugnatzea |
| 13 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 14 | Informazio eskubidea |
| 15 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 16 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 17 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 18 | Erabaki sozialak inpugnatzea |
| 19 | Diziplina espedientea |
| 20 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 21 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 22 | Diziplina espedientea |
| 23 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 24 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 25 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 26 | Diziplina espedientea |
| 27 | Diziplina espedientea |
| 28 | Diziplina espedientea |
| 29 | Diziplina espedientea |
| 30 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 31 | Kaleratzeko espedientea |
| 32 | Diziplina espedientea |
| 33 | Diru kopurua erreklamatzea |

| 2013 | Auzigaia (ADISKIDETZEAK) |
|---|---|
| 1 | Diziplina espedientea |
| 2 | Ekarpenak itzultzea |
| 3 | Ekarpenak itzultzea |
| 4 | Ikastolako langilearen birkokapena |
| 5 | Bazkidearen bajaren jakinarazpena |
| 6 | Diru kopurua erreklamatzea galerengatik |
| 7 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 8 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 9 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 10 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 11 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 12 | Batzar Nagusiaren deialdia |
| 13 | Diziplina espedientea |
| 14 | Erabakiak inpugnatzea |
| 15 | Bazkidearen baja |
| 16 | Obrako kalteen erreklamazioa |
| 17 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 18 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 19 | Bazkidearen kuotaren likidazioa |
| 20 | Egiteko betebeharra |
| 21 | Diru kopurua erreklamatzea |
| 22 | Likidazioan banatzeko proposamena |

- Horrez gain, gatazken prebentzioari lotutako hainbat kontsulta erantzun dira, eta hau da horien laburpen kuantitatiboa, gaien eta kooperatiba moten arabera:

| KONTSULTAK (kooperatiba motak) | |
|---|---|
| LAN ELKARTUA | 68 |
| ETXEBIZITZA | 62 |
| IRAKASKUNTZA | 5 |
| KONTSUMOA | 0 |
| GARRAIOLARIAK | 7 |
| KREDITUA | 0 |
| NEKAZARITZA | 3 |
| **GUZTIRA** | 145 |

| KONTSULTAK (aztertutako gaiak) | |
|---|---|
| **BAZKIDEEN ESKUBIDEAK** | |
| Informazio eskubidea | 10 |
| Zigor erregimena | 8 |
| Sozietate eta lan eskubideak | 23 |
| Beste eskubide batzuk | 1 |
| **ORGANO SOZIALAK** | |
| Erabakiak inpugnatzea | 13 |
| Beste gai sozietario batzuk | 24 |
| **ERREGIMEN EKONOMIKOA** | |
| Diru kopurua erreklamatzea bajagatik | 50 |
| Beste gai ekonomiko batzuk | 16 |
| HAINBAT | |
| **GUZTIRA** | **145** |

# CSCE-EKGK-ren osaera



## CSCE-EKGK-REN OSAERA

Kontseiluan ordezkaritza duten erakundeek, Osoko Bilkurako ordezkariak eta kargu berriak izendatzeko, dagokion berriztapena egin eta gero, 2013-12-31n CSCE-EKGKren osaera honela geratu da:

Maria Ubarretxena andrea (Presidentea/Eusko Jaurlaritza)

Javier Goienetxea jauna (Presidenteordea/Erkide)

Bittor Oroz jauna (Kontseilaria/Eusko Jaurlaritza)

Carlos Ormazabal jauna (Kontseilaria/Eusko Jaurlaritza)

Patxi Olabarria jauna (Kontseilaria/Erkide)

Agustin Mendiola jauna (Kontseilaria/Erkide)

Pablo Larrabide jauna (Kontseilaria/Erkide)

Alfredo Montoya jauna (Kontseilaria /Nekazaritzako Kooperatiben Federazioa)



Jose Miguel Mera jauna (Kontseilaria/ Kontsumoko Kooperatiben Federazioa)

Gonzalo Saez de Ibarra jauna (Kontseilaria/Garraiolarien Kooperatiben Federazioa)

Alejandro Martinez jauna (Kontseilaria/Deustuko Unibertsitatea)

Saioa Arando andrea (Kontseilaria/ Mondragon Unibertsitatea)

Baleren Bakaikoa jauna (Kontseilaria/Euskal Herriko Unibertsitatea)

**Kontseiluko langileak**

2913ko ekitaldian ez da aldaketarik egon langileen zerrendan, eta ekitaldiaren amaieran pertsona hauek osatzen zuten:

Juan Luis Arrieta jauna (Idazkari Nagusi Teknikoa)

Santiago Merino jauna (Letradua-Aholkularia)

Ion Azpiazu jauna (Administraria).

# Aurreskontuari dagozkionak

## Egoeraren Balantzea 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n

IFK: Q-5150003-A

(eurotan adierazia)

| AKTIBOA | Oharrak | 13-12-31 | 12-12-31 |
|---|---|---|---|
| **A) AKTIBO EZ KORRONTEA** | | **3.234.987** | **3.592.597** |
| I. Ibilgetu ukiezina | 5 | 237.544 | 247.828 |
| Erabilera-lagapenak | | 237.544 | 246.554 |
| Patenteak, lizentziak, markak eta antzekoak | | - | 174 |
| Informatika-aplikazioak | | - | 1.100 |
| II. Ibilgetu materiala | 6 | 109.267 | 50.625 |
| Instalazio teknik. eta beste ibilgetu material bat | | 109.267 | 50.625 |
| III. Inbertsio higiezinak | 6 | 125.960 | 125.960 |
| Lursailak eta eraikuntzak | | 125.960 | 125.960 |
| V. Epe luzerako finantza-inbertsioak | 7 | 2.762.216 | 3.168.184 |
| Ondare-tresnak | | 709.081 | 780.837 |
| Hirugarrengoentzat kredituak | | 2.052.517 | 2.386.729 |
| Beste finantza-aktibo batzuk | | 618 | 618 |
| **B) AKTIBO KORRONTEA** | | **2.304.804** | **2.439.643** |
| III. Merkat.-zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk | 8 | 447.082 | 671.550 |
| Beste zordun batzuk | | 447.082 | 671.550 |
| IV. Epe laburrerako finantza-inbertsioak | 7 | 910.500 | 7.712 |
| VII Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk | | 947.222 | 1.760.381 |
| AKTIBOA GUZTIRA | | **5.539.791** | **6.032.240** |

## Egoeraren Balantzea 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n

| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA | Oharrak | 13-12-31 | 12-12-31 |
|---|---|---|---|
| **A) ONDARE GARBIA** | | **852.982** | **816.639** |
| A-1) Funts Propioak | 9 | 506.170 | 534.562 |
| III. Erreserbak | | 534.562 | 562.632 |
| VII. Ekitaldiko emaitza | | (28.392) | (28.070) |
| | | | |
| A-3) Jasotako subentzioak, dohaintzak eta legatuak | **10** | **346.812** | **282.077** |
| | | | |
| **B) PASIBO EZ KORRONTEA** | | **4.233.325** | **4.563.866** |
| I. Epe luzerako hornidurak (FAEC) | 11 | 3.136.128 | 3.298.803 |
| II. Epe luzerako zorrak | 12 | 1.097.197 | 1.265.063 |
| Epe luzerako beste zor batzuk | | 1.097.197 | 1.265.063 |
| | | | |
| **C) PASIBO KORRONTEA** | | **453.484** | **651.735** |
| IV. Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk | 12 | 453.484 | 651.735 |
| Beste hartzekodun batzuk | | 437.554 | 635.321 |
| Ordaindu gabe dauden ordainsariak | | - | - |
| Herri Administrazioak | | 15.930 | 16.414 |
| | | | |
| ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA | | **5.539.791** | **6.032.240** |

## Galdu-Irabazien Kontua 2013ko eta 2012ko abenduaren 31n

IFK: Q-5150003-A

(eurotan adierazia)

| KONTZEPTUAK | Oharrak | (Zor) Hartzeko 2013-12-31 | (Zor) Hartzeko 2012-12-31 |
|---|---|---|---|
| **Hornidurak** | | **-1.166** | **-6.923** |
| c) Beste enpresa batzuek egindako lanak | | -1.166 | -6.923 |
| **Ustiapeneko beste sarrera batzuk** | | **1.053.843** | **1.103.663** |
| a) Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste batzuk | 13 a | 253.297 | 255.420 |
| b) Ustiapeneko diru laguntzak ekitaldiko emaitzan sartuak | 13 b | 800.546 | 848.243 |
| **Langile gastuak** | | **-186.162** | **-178.666** |
| a) Soldatak, ordainsariak eta antzekoak | | -153.411 | -150.653 |
| b) Karga sozialak | | -32.751 | -28.013 |
| **Ustiapeneko beste gastu batzuk** | | **-895.589** | **-942.494** |
| a) Kanpo zerbitzuak | 13 c | -129.709 | -132.278 |
| b) Zergak | | -2.105 | -923 |
| c) FAEC zuzkiduraren hornidura | 11 | -227.302 | -217.782 |
| d) Kudeaketa arrunteko beste gastu batzuk | 13 d | -536.473 | -591.511 |
| Ibilgetuaren amortizazioa | 5-6 | -23.807 | -24.086 |
| Ibilgetu ez finantzarioko diru laguntzen egozpena eta beste batzuk | 10 | 23.807 | 17.527 |
| **USTIAPEN EMAITZA** | | **-29.074** | **-30.979** |
| Finantza sarrerak | | 682 | 2.909 |
| b) Balio negoziagarriak eta beste finantza tresna batzuk | | 682 | 2.909 |
| **FINANTZA EMAITZA** | | **682** | **2.909** |
| **ZERGEN AURRETIKO EMAITZAK** | | **-28.392** | **-28.070** |
| **EKITALDIKO EMAITZA** | | **-28.392** | **-28.070** |

# Aurrekontua

| SARREREN AURREKONTUA | 2013 aurrekontua | 2013 Erreala 2013-12-31 | 2013 % gauzatuta | 2012 aurrekontua | 2012 Erreala 2012-12-31 | 2012 % gauzatuta |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **SARRERA ARRUNTAK** | **894.000** | **826.541** | **%92,45** | **896.000** | **885.878** | **98,80%** |
| - Aurrekontuko hornidura | %98,80 | 800.546 | 90,05% | 890.000 | 848.243 | 95,31% |
| - Beste sarrera arrunt batzuk | 889.000 | 800.546 | %90,05 | 890.000 | 848.243 | %95,31 |
| **SARRERA BEREZIAK** | **520.000** | **246.855** | **%47,47** | **1.017.500** | **237.506** | **%117,30** |
| - Kitapena eta eraldaketa (*) | 23,34% | 227.302 | 45,46% | 992.500 | 217.782 | 21,94% |
| - Beste finantza sarrera batzuk | 500.000 | 227.302 | %45,46 | 992.500 | 217.782 | %21,94 |
| SARRERAK guztira | 1.414.000 | 1.073.396 | %75,91 | 1.913.500 | 1.123.387 | %58,71 |

| GASTUEN AURREKONTUA | 2013 aurrekontua | Erreala 2013-12-31 | % gauzatuta | 2012 aurrekontua | Erreala 2012-12-31 | % gauzatuta |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **LANGILE GASTUAK** | **187.000** | **186.162** | **%99,55** | **183.000** | **178.666** | **%97,63** |
| **FUNTZIONAMENDU GASTUAK** | **94.000** | **128.515** | **%136,72** | **100.000** | **140.124** | **%140,12** |
| - Bidaiak, egonaldiak, lekualdaketak | 9.000 | 8.568 | %95,20 | 13.000 | 8.698 | %66,91 |
| - Kuotak eta harpidetzak | 2.000 | 1.922 | %96,10 | 5.000 | 2.251 | %45,00 |
| - Osoko Bilkuretara eta Batzordeetara joatea | 36.000 | 33.466 | %92,96 | 36.000 | 37.178 | %103,27 |
| - Azpikontratazioa | 14.000 | 1.166 | %8,33 | 8.000 | 6.923 | %86,54 |
| - Garbiketa, mantentze lanak eta besterik | 15.000 | 23.032 | %153,55 | 17.000 | 41.943 | %246,73 |
| - Komunikazioak | 8.000 | 5.632 | %70,40 | 9.000 | 7.822 | %86,91 |
| - Bestelako funtzionamendu gastuak (**) | 10.000 | 54.729 | %547,29 | 12.000 | 35.309 | %294,24 |
| **IZAERA OROKORREKO GASTUAK** | **27.000** | **16.299** | **%60,37** | **18.000** | **13.476** | **%74,87** |
| **ZUZENEAN EGINDAKO JARDUERAK** | **121.000** | **79.639** | **%65,82** | **175.000** | **168.663** | **%96,38** |
| **ELKARTZE EGITUREN KOFINANTZAKETA** | **445.000** | **445.000** | **%100,00** | **420.000** | **409.372** | **%97,47** |
| **IZAERA ESTRATEGIKOKO GASTUAK** | **13.000** | **0** | | **0** | **0** | |
| **BIRMOLDAKETA OBRAK AMORTIZ.** | **7.000** | **0** | | **0** | **0** | |
| **GASTU ARRUNTEN AZPITOTALA** | **894.000** | **855.615** | **%95,71** | **896.000** | **910.301** | |
| **ERAKUNDE PARTAIDETUAK** | **145.000** | **148.271** | **%102,26** | **147.000** | **121.021** | **%82,33** |
| **FAEC HITZARMEN JARDUERAK** | **250.000** | **113.651** | **%45,46** | **496.250** | **108.748** | **%21,91** |
| **ERAKUNDE LAGUNTZ. HITZARMEN JARDUERAK** | **117.000** | **117.601** | **%100,51** | **371.500** | **360.390** | **%97,01** |
| **FAEC GASTUAK** | **8.000** | **3.705** | **%46,31** | **2.750** | **2.202** | **%80,07** |
| **GAINERAKO GASTUEN AZPITOTALA** | **520.000** | **383.228** | **%73,70** | **1.017.500** | **592.361** | |
| **GASTUAK guztira** | **1.414.000** | **1.238.843** | **%87,61** | **1.913.500** | **1.502.662** | **%78,53** |
| **AURREKONTUKO EMAITZA** | **0** | **(165.447)** | | **0** | **(379.275)** | |

(*) Kooperatiben likidazio eta eraldaketetatik datozen sarrerek eta FAEC hitzarmenengatiko jardueren gastuek (sarreren %50), "2013ko erreala" zutabean, ekitaldiko likidazio eta eraldaketei dagozkien sarrerak jasotzen dituzte. Kontuan izanda kontzeptu horien "2013 aurrekontua" zutabeko aurreikuspenek ez dituztela jasotzen sortzapenak, kobrantzak/ordainketak baizik, ekitaldi honetakoak nahiz aurreko ekitaldietakoak, desbiderapenen azterketa egoki baten ondorioetarako, kobrantza/ordainketa horien balio errealak aurkezten ditugu.

(**) Funtzionamenduko beste gastu batzuen kontzeptuko gastu errealen zenbatekoan hainbat aldaketa sartzen dira, aurrekontuko "Izaera orokorreko jardueren gastuen" eta "Zuzenean egindako jardueren" partidetatik datozenak.

Ondoren, aurrekontu defizitaren eta ekitaldiko galeren arteko berdinkatzea aurkezten da:

| KONTZEPTUA | 2013 | 2012 |
|---|---|---|
| **AURREKONTUKO EMAITZA** | **(165.447)** | **(379.275)** |
| **KONTABILITATEKOAK EZ DIREN AURREKONTU SARRERAK** | **(246.173)** | **(234.597)** |
| **KONTABILITATEKOAK EZ DIREN AURREKONTU GASTUAK** | **383.228** | **592.361** |
| - Koop. Sustapen Jarduera Hitzarmenak | 148.271 | 360.390 |
| - FAEC Elkarteak Hitzarmenak | 113.651 | 108.748 |
| - Erakunde partaidetuen jarduerak | 117.601 | 121.021 |
| - FAEC gastuak | 3.705 | 2.202 |
| **AURREKONTUKOAK EZ DIREN KONTABILITATE SARRERAK** | **23.807** | **17.527** |
| - Kapital diru laguntzak emaitzara intsuldatuak | 23.807 | 17.527 |
| **AURREKONTUKOAK EZ DIREN KONTABILITATE GASTUAK** | **(23.807)** | **(24.086)** |
| - Amortizazioak | (23.807) | (24.086) |
| **EKITALDIKO EMAITZA** | **(28.392)** | **(28.070)** |

# Estatistika-Eranskina

## INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBAK KOOPERATIBAK

| MOTA | Guztira | ALAVA/ ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|---|---|---|---|
| NEKAZARITZA | 111 | 58 | 26 | 27 |
| ENPRESA ELKARKETAK | 1 | 1 | | |
| KONTSUMOA | 35 | 4 | 14 | 17 |
| KORPORAZIO KOOPERATIBOAK | 1 | | | 1 |
| KREDITUA | 1 | | 1 | |
| BIGARREN MAILA EDO GORAGOKOAK | 49 | 9 | 14 | 26 |
| IRAKASKUNTZA | 94 | 11 | 45 | 38 |
| ERKIDEGOAN USTIATZEKOAK | 4 | 2 | 1 | 1 |
| MISTOAK | 45 | 4 | 8 | 33 |
| ENPRESA ZERBITZUAK | 38 | 7 | 8 | 23 |
| ZERBITZU PROFESIONALAK | 44 | 7 | 22 | 15 |
| LAN ELKARTUA | 1090 | 152 | 475 | 463 |
| LAN ELKARTUA - JUNIOR KOOPERATIBA | 8 | | | 8 |
| ETXEBIZITZA | 322 | 106 | 153 | 63 |
| **KOOPERATIBAK GUZTIRA** | **1843** | **361** | **767** | **715** |

## 2013-12-31RA ARTE INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBA TXIKIAK

| MOTA | Guztira | ALAVA/ ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|---|---|---|---|
| LAN ELKARTUA | 568 | 79 | 267 | 222 |
| **KOOPERATIBAK GUZTIRA 2013-12-RA ARTE** | | | | |
| KOOPERATIBAK | 1843 | 361 | 767 | 715 |
| KOOPERATIBA TXIKIAK | 568 | 79 | 267 | 222 |
| **GUZTIRA ORO HAR** | **2411** | **440** | **1034** | **937** |

## 2013AN INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBA

| MOTA | Guztira | ALAVA/ ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|---|---|---|---|
| NEKAZARITZA | 3 | 1 | 1 | 1 |
| KONTSUMOA | 1 | | | 1 |
| MISTOAK | 2 | | 1 | 1 |
| ENPRESA ZERBITZUAK | 1 | | | 1 |
| LAN ELKARTUA | 24 | 2 | 15 | 7 |
| LAN ELKARTUA - JUNIOR KOOPERATIBA | 8 | | | 8 |
| ETXEBIZITZA | 17 | | 17 | |
| **KOOP. GUZTIRA** | **56** | **3** | **34** | **19** |

## 2013AN INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBA TXIKIAK

| MOTA | Guztira | ALAVA/ ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA |
|---|---|---|---|---|
| LAN ELKARTUA | 140 | 23 | 68 | 49 |
| **2013AN INSKRIBATUTAKO KOOPERATIBAK GUZTIRA** | | | | |
| KOOPERATIBAK | 56 | 3 | 34 | 19 |
| KOOPERATIBA TXIKIAK | 140 | 23 | 68 | 49 |
| **GUZTIRA ORO HAR** | **196** | **26** | **102** | **68** |